

PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

DOKUMENTU LAGUNGARRIA: PROPOSAMEN TEKNIKOAREN ATAL BAKOITZEAN ESKATZEN DEN INFORMAZIOAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA

B.- LEHENTASUNEZ EUSKADIN EGITEN DIREN GARAPEN PRODUKTIBOKO, PRESTAKUNTZAKO ETA LAGUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK (II. KAPITULUA) ETA GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZIKETAKO PROIEKTUAK (III. KAPITULUA)

1.- PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA.

Deskribatu, gehienez 5-10 lerrotan, daturik garrantzitsuenak.

2.- PROIEKTUAREN KOKAPEN ZEHATZA.

Deskribatu, gehienez 20 lerrotan. Adierazi jarduera espezifikorik aurreikusi ote den udalerrri garrantzitsuenetatik kanpo.

3.- TESTUINGURUA. Ez txertatu eranskinik.

Deskribatu testuingurua, gaiari eta xede-biztanleriari dagokienez. Erantsi zeharkako ikuspegia atal guztietan.

4.- AURREKARIAK. Ez txertatu eranskinik.

Argitu ekimena nondik sortu den eta zer nolako identifikazio-prozesua jarraitu den parte-hartzean. Aipatu alde zuzenetik lagundutako fase/prozesuen diagnostiko, azterketa edo ebaluazioak, baita ikaskuntza esanguratsuenak ere.

5.- JUSTIFIKAZIOA. Ez txertatu eranskinik.

5.1.- Deskribatu proposamena eragin duten arrazoiak zeintzuk izan diren.

5.2.- Justifikatu proposamena, xede-biztanleriaren gaitasun eta ahulguneetan eta testuinguruaren aukera eta mehatxuetan oinarrituta.

5.3.- Justifikatu esku-hartzea, GLEAren plangintza estrategikoak, erakunde eskatzailearen beraren plangintza estrategikoak eta, hala badagokio, Gobernuaren beste plan batzuk aintzat hartuta.

6.- ERAKUNDE ESKATZAILEAREN ESPERIENTZIA. Ez txertatu eranskinik.

Kudeaketako esperientzia gaiarekin loturik (azken 5 urte naturaletan: 2014-2018)				
HASIERAKO/ AMAIAERAKO DATA	TITULUA	LABURPENA	DIRU-LAGUNTZA EUROTAN	FUNTSEN JATORRIA

- Esperientzia jarraitua eta esanguratsua denean balioetsiko da: erreferentziako urtean – 2014– hasitakoa izan behar du, eta 2018. urtera arte luzatu.
- Ordezkaritzen kasuan, EAEko ordezkaritzaren esperientziari buruzko informazioa soilik aipatu behar da; EAEtik kanpoko beste egoitza batzuetatik kudeatutako esperientzia ez da aintzat hartuko.
- Erakunde eskatzaileen partzuegoa izanez gero, partzuegoburuari dagokion informazioa **soilik** bete behar da.

7.- XEDE-BIZTANLERIA ETA ELKARTE ALIATUAK. Ez txertatu eranskinik.

7.1.- Identifikazioa eta ezaugarriak. (H)ABIAN 2030 estrategian identifikatutako kolektibo ez-tradizionalen presentzia aipatu behar da, baldin eta kolektibo horiekin lan egin nahi bada.

Kolektiboa	Kokapen geografikoa	Ezaugarriak (gaitasunak/ahulguneak)	Pertsonak guztira	Emakumeak	Gizonak	Adin-taldea

7.2.- Hautaketa-irizpideak. Deskribatu xede-biztanleria hautatzeko definitutako irizpide zehatzak. Hala badagokio, emakumeen eta gutxiengo bihurtutako kolektiboen (dibertsitate funtzionala, sexuari, adinari, kulturari, erlijioari... lotutako dibertsitatea) parte-hartzea bermatzeko berariazko neurrien berri ematea.

7.3.- Proiektuaren zein fasetan parte hartzen duten eta nola (identifikazioa, gauzatzea eta ebaluazioa).

7.4.- Deskribatu biderkatze-ahalmena garatzeko aurreikusitako tresna edo proposamenak.

7.5.- Deskribatu elkarte aliatuek zenbaterainoko ekarpenak egiten dizkioten ekimenari metodologiari, gaiari edo kolektibo espezifikoekiko loturari dagokienez.

8.- ESKU-HARTZEAREN LOGIKA. Ez txertatu eranskinik.

8.1.- Marko logikoaren matrizea.

- Helburu orokorra. Deskribatu esku-hartzearekin lortu nahi den helburu zabalena.
- Helburu espezifikoa. Deskribatu xede-biztanleriarengan lortu nahi den eragin positiboa, testuinguruaren azterketan deskribatutako funtsezko arazoak konpontzeko.
- Helburu espezifikoaren lorpen-mailaren adierazleak: adierazle zehatzak deskribatzea, egiaztagarriak eta neurgarriak, kualitatiboak eta kuantitatiboak.
- Adierazleak egiaztatzeko iturriak: adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko zer iturri baliatzen diren zehaztuko da –inkestak, zuzeneko behaketa, argitalpenak eta abar–.
- Kanpoko faktoreak edo hipotesiak. Deskribatu kontuan izan beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere proiektuaren kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, proiektuak arrakasta izatean eragin erabakigarria izan badezakete.
- Lortu nahi diren emaitzak. Proiektua gauzatzean lortuko diren emaitzak deskribatzea, betiere egindako jardueren ondoriozkoak izanik eta helburu espezifikoa lortzen lagunduko dutela.
- Emaitzen lorpen-mailaren adierazleak: adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta neurgarriak deskribatzea, kualitatibo eta kuantitatiboak.
- Adierazleen oinarritzko lerroa, izanez gero.
- Adierazleak egiaztatzeko iturriak. Adierazleen betetze-maila zein egiaztatze-iturriren bitartez –inkestak, behaketa zuzena, argitalpenak...– egiaztatuko den deskribatu behar da.

HELBURUA	ADIERAZLEAK	OINARRIZKO LERROA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK	KANPOKO FAKTOREAK/HIPOTESIAK
HELBURU OROKORRA XXX				
HELBURU ESPEZIFIKOA A XXX	1. AOE 1. HE:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
	2. AOE 1. HE:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...

1. EMAITZA XXX	1. AOE 1. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...
	2. AOE 1. E:		1. EI. 2. EI. ...	1.H: 2.H: ...

2. EMAITZA	1. AOE 2. E:		1. EI.	1.H:

			2. Ei. ...	2.H: ...
XXX	2. AOE 2. E:		1. Ei. 2. Ei. ...	1.H: 2.H: ...

8.2.- Proposatutako esku-hartzearen logika azaltzea testuinguruaren azterketarekin loturik, eta estrategia justifikatzea; (H)abian 2030 estrategian xedatutakoen ildotik, xede-biztanleriarengan lortu nahi diren aldaketa zehatzak azaltzea, baita aldaketaren kontakizuna ere.

8.3.- Hautatutako estrategia azaltzea, zeharkako ikuspegi bakoitzari dagokionez:

8.3.1.- Ikuspegi tokiko globala. Deskribatu ekimenak nola sustatzen duen tokikoaren eta globalaren arteko elkarrekiko mendetasuna ikusgai egitea eta elkarrekiko mendetasun horretaz jabetzea, eta nola indartu nahi dituen gaitasunak azterketa kritikoa bultzatzeko, aliantzak sortzeko eta Hego global eta geografikoko kolektiboen parte-hartzea bultzatzeko.

8.3.2.- Generoa. Deskribatu ekimenak nola sustatzen duen genero-desparekotasunak ikusgai egitea eta desparekotasun horietaz jabetzea, eta nola lortu nahi duen desparekotasun-arraila hori murriztea eta/edo emakumeak edo sexu-identitateagatik/generoagatik gutxiengo bihurtutako kolektiboak ahalduntzea, erakunde feministek eta emakumeen elkarteek parte hartzea eta/edo agenda feministaren alderdiak txertatzea.

8.3.3.- Parte-hartzea/antolamendua. Deskribatu ekimenak nola sustatzen duen subjektuei laguntzea eta nola lortu nahi duen subjektu horien benetako parte-hartzea eta proposamen zehatzak egituratzea alternatibak sustatzen dituzten kolektiboekin.

8.3.4.- Giza eskubideak. Deskribatu ekimenak nola sustatzen duen xede-biztanleriarengan beren eskubideak defendatzeko gaitasunak indartzea eta nola lortu nahi duen eskubide guztiak errespetatu daitezkeen bermatzea eta erantzukizunak onartzea, gutxiengo bihurtutako kolektiboen eskubideei bereziki erreparatuta, baita giza eskubideak defendatzen dituzten elkarteak sustatzea ere.

8.3.5.- Jasangarritasun ekologikoa. Deskribatu ekimenak nola sustatzen dituen, alde batetik, ingurumenaren egoeraren gaineko kontzientziazio kritikoa eta, bestetik, horrekin lotutako jarduketak, eta nola lortu nahi duen inpaktu negatiboari aurrea hartzeko edo inpaktu negatibo horiek leuntzeko ekintzak indartzea, eta kontsumo arduratsua eta jasangarria sustatzen duten ekintzak, ekonomia sozial eta solidarioa, mugikortasun jasangarria... sustatzen dutenak.

8.4.- Emaitzak lortzeko aurreikusi diren ekintzak zehazki deskribatzea, eta ekintza bakoitzerako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak eta materialak zehaztea.

--

Deskribapen zehatza:

- Jarduera
- Giza Baliabideak
- Baliabide tekniko eta materialak
- Metodologia
- Aurrekontua
- Iraupena

9.- **JARDUEREN KRONOGRAMA.** Aurreko atalean deskribatutako jarduerak lehenengo zutabean zerrendatuko dira. X batez adieraziko da jarduera gauzatzeko aurreikusitako epea.

Urtea	1. URTEA		2. URTEA	
	1.a	2.a	1.a	2.a
Seihilekoak				
1. emaitza				
Jarduerak...				
Emaitza (...)				
Jarduerak (...)				

10.- **AURREKONTUA.** Osatu Aurrekontuaren atal guztiak, ereduaren arabera (aurrekontu orokorra, banakatua eta jardueren arabera). **Txertatu eranskina.**

11.- BIDERAGARRITASUNA

11.1.- Bideragarritasuna baliabide metodologikoei dagokienez. Azaldu zein ikuspegi metodologiko hautatu den eta nola egokitzen diren xede-biztanleriaren testuingurura, adinera, gaitasunetara eta ahulguneetara eta lortu nahi diren aldaketetara.

Txertatu, eranskin gisa, prestakuntzako materialak eta planak Bideragarritasuneko eranskinak.

11.2.- Bideragarritasuna giza baliabideei dagokienez. Deskribatu eta justifikatu proiektua, oro har, gauzatzeko beharrezkoak diren kontratatutako langileak, boluntarioak eta kontratatutako zerbitzuak, baita zeharkako ikuspegiari eta ikuspegi metodologikoei dagokienez ere; profila eta zer eginkizun beteko dituzten. Adierazi emakumeen edo gizartean baztertuta dauden kolektiboen kontratazioa indartuko duten ekintza positiboko zer neurri ezarriko diren eta, hala badagokio, ekonomia sozial eta solidarioko baliabideak erabiliko ote diren.

Txertatu, eranskin gisa, kontratatutako langileen eta boluntarioen egokitasunari buruzko azalpen-memoriak atal honetan: Bideragarritasuneko eranskinak.

11.3.- Bideragarritasuna, zabalkunde-sistemari dagokiona. Justifikatu proiektuko jarduerak eta materialak ezagutarazteko estrategia. Xede-biztanleriara egokitu eta produzitutako produktu eta materialetarako sarbide globala bermatu. **Ez txertatu eranskinik.**

12.- JASANGARRITASUNA. Ez txertatu eranskinik.

Helburuari eta emaitzei denboran eustea. Deskribatu zer faktorek bermatuko duten proiektuaren jarraipena diru-laguntza amaitzen denean: azaldu ezarritako gaitasunak eta biderkatzeko aukerak, sortutako sare eta aliantzak, etorkizuneko kostuen aurreikuspena, diru-sarrerak eta ekarpenen konpromisoak.

13.- JARRAIPENA. Ez txertatu eranskinik.

Deskribatu aurreikusi diren gauzatzeko eta jarraipenerako mekanismoak. Azaldu eragile bakoitzak betetzen duen eginkizuna (partzuergoa baldin bada, eta elkarte aliatuen parte-hartze esanguratsuaren kasuan).

14.- ETENGABEKO IKASKUNTZA Ez txertatu eranskinik.

Deskribatu ikaskuntzak, ekimenaren esparruan izandako ikasbideak txertatzeko estrategia, betiere hezkuntza-arloko jardunbideak hobetze aldera. Kanpo-ebaluazioa aurreikusten bada, deskribatu, labur-labur, helburua, irizpideak, metodologia, gizarteratzeko mekanismoak eta gomendioei erantzuteko mekanismoak, edo ikaskuntzak nola txertatuko diren.